

# + Anaitasuna

VIII URTEA - N.º 96

Depósito Legal SS. 1092—1959

Suplemento de la Hoja  
ANAITASUNA de Guipúzcoa

ABENDUA (12) 1962

## EGIN

Egin, jaso. Gauzarik gatzena, neketsuena. Eta egin, ez au edo ori. Mundua da guk egin bear doguna. Eta mundua ez da au edo ori; mundua ganza asko dira; norbera eta besteak; gureak eta besteenak. Baiña mundua zabala da eta "beste" orreek asko dira, eta norbera be ba-da naiko zer-egin. Zer egingo eta nundik asiko?

\* \* \*

Mundua ez da berez egingo; guk egin bear dogu. Eta egin be egiten gagoz. Orain-txe, berton, mundua egiten gagoz. Zelakoa da? Ni langoak balitzakez gizon guztiak, zelako mundua izango genduke?

Ez dago emen albokoaren lepotik bizitzetik. Ezta ausokoari errua botaterik be.

Mundu barriaren eske gagoz. Baiña guk egin bear doguna ez da etorriko zerutik. Baitotzak bere txokoan; danok mundu osoan.

\* \* \*

Mundua ez da berez egingo; guk egin bear dogu. Eta izan be gure pareko izango da mundua: gu garbiak, mundua garbi; gu alai, mundua be alaitsu.

Zintzoak bagara, era batekoak, munduak entzun egingo deusku.

Gure barruan dagoz mundu barriaren oiñarriak. Eta gure barruan bakarrik. Bakea, zoriona, maitasunak bakar-bakarrik ekarriko deuskuz. Bakea eta mundu barria ez dira odolaren frutuak, alkar-maitasunarenak baiño.

Gure barruan dago argia, gauza guztiak ederrak biurtuten dituan argia.

\* \* \*

Egin, jaso. Mundu barri bat. Au da gure eginkizunik aurrena eta aundiena. Egin, aspertu barik, gure biotzak emoten deuskun almenarekin.

Egin, jaso. Asi gaitезan!

# Izan bear neban...

## Bañan enaiz izan

Jaungoikoak, bere jakintasun neurribakoan, ipini ebazan gauza guztietarako lege bereziak. Bañan gizonak, emon eutsan azkatasunaren birtartez, jokatu leike bai lege orren araura ta baita kontra be. Ta badira, ta ez gltxi, lege ori ausi ta ezeztuten dabiinak be.

Lurbiran jente asko gagozela? Jaungoikoaren legeak gordeko balira, agian bestainbat be izango giñake. Jaungoikoak Paradisoko ortu santuan esan eutsen lenengo gurasoei: «CRESCITE ET MULTIPLICAMINI: AZI TA GEIAGOTU ZAIENZE». Bañan berak ondo ekian umeak izan, umeak azi ta umeak ezitzea etzala gauza aini erakarkorra, etzala gauza atratiboa. Egite orrek baebazala beragan naiko neke ta naigabeak, eta gozakirik ezbaeban danak egite oratik iges egingo ebiela. Ta gozakin apurtxo bategaz gozatu eban.

Bañan zer? Amak semetxoari ogi zati bat ezti apur bat ganean ipinita emoten dautsenean amak gura dau ogi zati ori jan dagiala. Bañan zer egiten dau semetxo mizkiñ arek? Eztia mihizkatu ta ogi zatia itxi.

Orixe egiten dabile askok Jaungoikoaren legeagaz be. Legea dala. Ze lege ta ze legekondo!... Pozgarria bada bete, atsegingarria dana egiñ ta nekagarria daben alderdia, astuna dana itxi. Ta kristiñau zintzoak dirala erakutsi gura ta kristiñau zintzoen araura jokatzan dabiela erakusteko milleka igespide edo aitzakiak asmatuko dabilez. Oso gitxi irabasten dabiela, bizitza iñoiz izan dan baño garestiako dagola, aterpe edo etxerik eztaukiela, oingo aloger edo soldatakiñ bat edo bi asi ta ezitzea be naiko dala, beurak bakarrik emoten dabilezan buruaustek be eztirala txikiñak, gura ta be ezin leikezela geiago azi, gizartea geiegi ugarituz doala, emendik urte batzuetara gosea pranko izango dala, lurraldeak geroago ta elkorrakoak bihurtun dirala, eta abar.

Eta orrelako jardunak entzuten dira, ez sinismenbakoen artean bakarrik, baita sarritan gure Jauna artuten dabiienen artean be. Ta beura Jaungoiko-legea beteaz bide zuzenetatik dabilzala erakutsi-arazi ta besteak engañatzeke ezpada be, esango deutsue beurak beuren aitor-entzuleari aolkua edo konsejua eskatu dautsiela ta aitor-entzulearen oniritziar orrela jokatzan dabiela. Bai, aitor-entzulea engañatuko dozu, zeure inguruan dabilzanan engañatuko dozuz. Da, batezbe danak engañatzen dituzulakoan, zeure burua engañatuko dozu. Bañan zeugaz zer ikusirik aundiena dauken daneen artetik bat eztozu engañatuko. Jaungoikoa eztozu engañatuko.

Mateo Ebanjelariak esan euskun: «REGNUM COELORUM VIM PATITUR, ET VIOLENTI RAPIUNT ILLUD: ZERUKO ERREÑUA IN-

DARKA LORTZEN DA TA INDARTSUAK DIRA ARETZAZ JABETZEN DIRANAK». Mat 11,12. Jaungoiko-legearen araura jokatu gura badozu, beaztopoak ugari izango dozuz, bañan indartsu jokatuaz danak cinperatuko dozuz. Zuk nik ainan ezagutzen duzu urlia, media, bestea ta beste sendi edo pamilia. Erak eztaukie zuk baño soldata obeagorik, areik be luzaroen etxe billa ibilli dira, areik be zu beziñ beartsuak dira, ta ikusi pamilik zenbat diran ta ze ondo azi ta ezitako seme-alabak daukiezan.

Aldaben guztia egiten dabenak, ezin dabena Jaungoikoari eskatu, ta or ortez edo golan dabilzan txoritxo ei jaten emoten deutenak, ez deustube gozez ilten itxiko. Oin trabenetarik trabenetara, ziñetatik ziñetara, periplazetatik periplazetetara, ondo lo eginda, ondotox janda, biar gitxitxo eginda ibilli gura badozu, guzti orretarako ez deustu emongo. Ori zeruko erreñua indar barik irabastea izango litzake, ta erreñu ori indarka irabazi bear dogu. Au Adan eta Eba'ren seme-alaba guztien legea dogu. Betebear bat beragan artzen dabiinak obligaziño ori betebear dau.

Famili bat eratzer ta doazenak, aurretik ausnartu bear dabilez artzera doazen betebearrak. Eztago obligaziño orreik cinperatuta lasai bizi ta zeruko erreñua irebazterik. Jaungoikoaren legea gogorra da. Gozartu ta ortik etorri bear daben ondorioa galerazitea, beti pekatu izan da ta aurrerantzean be pekatu aztuna izango da. Orrela jokatzan dabiinak, izan-bear eblineen eta izan eztiraneen ordez beuren barrunbe edo kontzientziak salatuko dauz. «Nik izateko eskubidea neukan» esango deutsie. «Jaungoiko ni izatea gura eban. Bañan neronen gurasoak izan bear zenduenc galazo egin eustazuen. Nik Jaungoikoari emon bear neutsan aintza, zeuek Jaungoikoari ostu dautsazube».

Izateko eskubidea eblineen milleka zamaetatik urtendako abots sentikorak beuren kontzientzia beuren arpegiara jaurtiko dautsue: «Nik... eta nik... eta nik... izateko eskubidea geunkan. Gu danoen izatea Jaungoikoaren aintzarako izango zan». Izaki guztiak, izateaz bakarrik epada be. Jaungoikoak egiñak diran aldetik, Jaungoikoaren almena abestuten dabile. Jaungoikoari aintza emoten dautsue. «Oin ausi onetzaz Epaille suminkor oneri kontu garrata emon-bearko dautsazube». Zer onetzaz kontu aundia artu ba. Besteak engañatzen dozubezelakoan, zeuen buruak ez engañatu. Ogei edo berrogi urte estutxoago, nekeen artean bizitzea, betiraunean paregabeke neke ta oinaseinietan bizitza baño obeagoa izango da ta.

# Pozu ondoan legeez...

Pozu baten ondoan sartuta legeez bizi dira gure arteko batzuek.

Pozua ez da aiñ aundia; tentetu ezkerokia ikusi egiten da pozuairen gaiñetik. Alegindu ezkerokia laster urtengo leuke baiña bertan gelditzen da, makurtuta.

Ez da bertan aiñ giro be. Basatsu dago lurra eta euria danian... uretan. Soñekoa be zikindu egiten da.

Eta an dago gizona, makurtuta, pozuairen sakonean. Ez da giro an; argi aundirik be ez dago bertan. Kanpoan bai; kanpoan argia eta alaitasuna baiño ez da sentitzen, baiña bera makurtuta.

Pozu-ondoan egoteko ez dago nekatu bearririk. Ez da egoten aiñ ondo, ez da aiñ leku ederra, egia; eta mobitu ezkerokia barriztau

egiten da basia eta soñea zikindu. Baiña an egoteko ez da ezer egin bearririk eta...

Lantzian bein, pozuairen albotik zear doñanantz pozura begiratzean eta barruan bat ikusi: "Baiña urten eik ortik. Begitu egik danean eguzkia, soloak, lorak eta txoriak, munduairen alaitasun eta poza", esaten deute.

Eta pozuko gizona tentetu egiten da. Atera burua, eta begitu egiten dau inguruan... mundua, argia, mendiak, soloak, gizonak, erriak... bizitza. Eta

"Bai, baiña, oba da bake santua", diño.

Eta makurtu eta pozu ondoan gelditzen da.

Olan gutariko batzuek be.

## APAIZIK EZ DAUKIE ERDALERRIAN DAGOZAN ESPAÑITARRAK

Zeinbat neskek ez dabe, gaurko egunean, urten euren etxe ta errietatik, ta beste naziñoetara jo, an neskame sartu ta bizitza aurrera alaratzeko. Ingalaterra, Frantzi, Alemani, eta beste naziño batzuek, españitar neska asko artu dabe. Ta españitar orren artean asko ta asko euskaldunak dira. Au dala edo a dala, euren errietan biarrik ez daukie. Kanpora joan bear. Ta egia, dirua ugari irabazi, emen baiño asko be geiago, zelan ez!, eta ez txarto ibilli gelnetan. Egia ori; ta egia baita be, negargaria, askotan, gelnetan, arimako gauzak alde batera itxi, gurascen itun edo konseju danak aztu ta arimako bizitza txarto eroaten dabela.

Baiña badira euren arimen ardurea artzen dabenak, ori edozelan itxi daiken gauzea ez dalako. Problema ori Erromako Aita Santuek ikusi dabe. Euren bitartez azaldu da bertan Migraziñoien Obispo Komisiñoa. Pio X izan zan bizitza emon eutsuna. Berak ondo ikusi eban problema onen gordintasuna, ta beren ardurea artzeko agindu eban. Orduan agertu zan len esandako Komisiño ori.

Iru urtetik iru urtera Komisiño onek batzar nagusia izaten dau. Ezin da bildu sarriago, osotuten daben obispoak mundu guztian zabalduta dagoz-ta: Amerika, Japon, Union Sudafrikana ta abar. Komite Ejekutibo bat be badauko

Komisiño onek. Au iru illabete bakotxean batzen da. Komite au Itali, Frantzi, Beljika, Alemani ta Españik betetzen dabe.

Auxe da batzar onetan beti ikusten deguna: Eleizearen katolikotasuna, erri guztien maitasun eta lagun naiagaz, beste munduko batzararak elduten ez diran berbeta ta eginkizunetara elduten dala. Badira, bai, munduan beste gizon-alkartasunak albokoari laguntzeko. Baiña zer ikusten da gelnetan? Berba asko eta egite gitxi.

Ona emen, amaitezko, numero batzuek, aritzeakoak egitan:

Ingalaterran, españitar ogei milla neska apaiz barik bizi dira.

Arjentinan, Buenos Airesen bakarrik, milloi bat dira bardin bizi diranak.

Frantzi, Suiza, Alemani ta beste naziñoak, erderaz dakien apaizen billa dabilta.

Bai, kapellanak bearrezkoak iakez. Baiña zelan joango dira orretara errietara eta zelan bizi an? Apaizak be jan egin bear dabe. Kapellanak bearrezkoak badira, baita be eureri laguntzeko dirua.

Elizeak ipinten dau gatxena: gizona, apaiza, kapellana.

Nok ipiñiko dau beste ori?



# BARTZELONATIK

Urriaren iruan urten genduan Bilbaotik Bartzelonara. Biaja guztiz astuna. Abioyez izan ezik, biaja luzeak beti dira astunak Espaiñian. Goizeko zortziretan urten genduan Abandoko estaziñotik, eta gabeko amar t'erdietan eldu giñean Bartzelonara. Amalau ordu t'erdi. Dubliñetik Londresera baiño geyago. Ta gaiñera, Zaragozan Madrilleko rapidua artukeran, trenaren "be-lozidadeagaitik" beste billeta bat ordaindu bear izan genduan. Ondo dago gero!

Dana dala, osasunagaz eldu giñean Bartzelonara laurok: Don Francisco Otamendi, Aita Andres Uberuaga, Eduardo Cruz Iturzaeta eta neu. Laurok, Bizkaiko Itxas Apostoladukoak. Bartzelonako estaziñoan lagun onak aurkitu genduzan, eta eurokaz batera Tibidaboko etxe polit batera joan giñean lo egitera.

## Itxas Apostoladuko Batzarra

Tibidabo, Bartzelonako altura baten dago. Bertatik, ezin obeto ikusten da Bartzelona osoa. Tibidabon, etxe eder bat dauke Aita Eskolapioak. Etxe onetan, Itxas Apostoladuko ogetabost bat Kapellau batu gara, Vigo'ko Obispo Jaunaren zuzendaritzapean.

Iru egun igaro doguz bertan, eta ardura aundiagaz estudiatu ditugu Itxas Apostoladuko problemak. Problema aundiak, Apostoladu au Espaiñian gauza asi barria da-ta.

Zeuen kontsolamenturako esango deusuet, arlo onetan Euskalerrian gagozala obetoen. Baiña oraindiño, asko daukogu egiteko. Bizkai ta Gipuzkoako Kapellauak,

Jaungoikoari eskerrak, polito gabiltza lan egiten; baiña eldu da ordua, itxasgizonak eurak euren artean bear egiten asteko.

Auxe da gure gaurko preokupaziñorik aundiena: formatu itxasgizonen artean kristiñau zintzoak, goitik beerakoak, bildur bakoak, Kristoren dotriña salbagarria barkuetan sartzeko prest dagozanak. Itxas Apostoladuko Kapellauak gitxi egin geinke, itxasgizonak eurak euretara lan egiten ez badabe.

Esate baterako, Sierra Leonako Free-townen, Itxas Apostoladuak etxe polit bat dauko. Antxe bizi dira neugaz arraintzale gaixoak, eta araxe etorten dira zerbezatxu bat-edo edaten bearretik libre dagozanak. Aurten, kapilla txiki bat eukiko dogu bertan; eta, ongilleak lagunduten badeuskue, ziñea emoteko aparatutxu bat.

Arraintzaleen problema batzuk, neuk arregla neikez geldi geldika Itxas Apostoladuko etxe orretan; baiña beste problema asko nok konpondu, arraintzaleak eurak izan ezik?

Kasu baterako, pasa leiteke, barku baten lan larregi egitea, naiko deskantsurik ez eukitea, lo gitxi egitea, gaixoen ardurarik ez eukitea.

Beste barku baten barriz, barruko lagunak bearbada ez dira alkarregaz ondo konpontzen: dana izan leitekean okasiñoa, ikusieziña, juramentua, murmuria, pelikadea, kritikaziñoa.

Orrezaz gaiñera, jazo leiteke, barkuen arteko artu-emonak txarrak izatea. Bearbada, alkarrerri ez deutsoe lagunduten, edo radiotik ez dabe egia esaten, edo bata besteari engaiñetan dabilta.

Olako problemak, gogorrek dira. Itxas

Apostoladuko Kapellauak era gitxi dauko-  
gu, asuntu orreek konpontzeko. Arraintza-  
leak aurak lan egin bear dabe orretan, eta  
emon bear deutsee problema orreeri solu-  
ziño egokia.

Gauza oneen gaiñean berba egin genduan  
Bartzelonako Batzarrean.

## Pasadizu barragarria

Tibidabon, eleiza eder bat dauke Aita Sa-  
lesianoak. *Templo expiatorio del Sagrado  
Corazón* da bere izena. Bertan esaten ne-  
ban mezea egunean egunean. Goiz baten,  
eleiza aurrean nengoala, kotxe bat lotu zan  
bertan. Kotxetik, abade batek urten eban.  
Abade sentzillu baten antza eukon. Ikusi  
ninduanean, niregana etorri zan; eta, egun-  
on erdera ederrean esanda gero, portuge-  
sa zala esan eustan, eta Jesusen Biotzaren  
Santuariotan mezea emon gura ebala.

Trankil egoteko esan neutsan nik, gauza  
guztiak neuk atonduko nituala-ta. Ba-dakit  
nik zer dan estranjerian bakarrik ibiltea:  
eta orrexegaitik, egiñala egin neban abade  
areri lagunduteko. Eroan neban sakristeria-  
ra; esan neutsan dokumentaziñorik ez era-  
kusteko, ez eutsola iñok eskatuko-ta; emon  
neutsozan neure amitua ta purifikadorea,  
eta neuk eraso neutsan mezea. Oso pozik  
egoan bera.

Nik ez nekian nor zan. Baiña lenengo  
momentutik, aparteko zerbait igarri neu-  
tsan. Ain fiña zan, ain moduzkoa, ain kon-  
fiantzagarria, ain ondo esaten eban meza  
santua!

Ofortorioan, kollaratxu barik ur tantak  
kalizera botetako larri samar ikusi neba-  
nean, "Bota, bota ikara barik" esan neu-  
tsan. Mezea amaitu orduko, beste altara  
batera joan bear izan neban, neure mezea  
esateko. Ez neban ikusi geyago portuges  
abadea. Gero enteratu nintzan, Lisboako  
Artzobispo Laguntzaillea zala. Orduan izan  
zan nire lotsaria, Ofortorioan esan neutso-  
zan errespetu hako berbakaitik.

### KATALUÑIA

Aspalditik euki izan dot Kataluñia eza-  
gututeko guraria. Katalanak, gauza askotan  
dira Euskaldunen antzekoak. Orrexegaitik  
konponduten gara eurokaz beste Espaiño-  
leakaz baiño obeto.

Bartzelonak, inpresiño ezin obea egin  
eustan. Bere kale nagusiak, bere abenidak,  
bere erranblak, here plazak guztiz ederrak  
dira. Gau baten, Montjuixera joan giñean,

eta turdiduta lez egon gintzazan ainbeste  
denporan ango argizko iturri miragarria  
ikusten ta ikusten.

Katalanak, asko berba egiten dabe euren  
izkuntzan. Ayuntamentua ta Diputaziñoa  
ikusten joan giñean, zokondo guztietan  
entzuten geuntsan jenteari katalan berba  
egiten. Kaleetan, zetan esan-bere ez. Pentsa  
eiteken, estranjerian gengozala.

Espaiñol batzuk ernegetan egoten dira,  
beste Espaiñol batzuk eurak lez berba egi-  
ten ez dabenean. Ni barriz, eztitan egoten  
nintzan, Bartzelonako kaleetan neskati-  
lla ta andra eleganteak katalan berba egiten  
ikusten nituanean. Baiña era batera, triste  
samar jarriten nintzan, Euskalerriko neska-  
tilla ta andra eleganteak burura etorten ja-  
tazan-da. Ai, noiz konturako gara Euskal-  
dunok, euskera barik gure euskalduntasu-  
nak ez deuskuna ezetarako balio!

## Eskabide bat

Artikulu au irakurten dozueneko, ni Oes-  
tafrikian egongo naiz Euskaldun arraintza-  
leakaz. Esan deutsuet len, Freetownen I-  
txas Apostoladuko etxe bat daukoguna. E-  
txetxu ori, polito polito ipiñi gura geunke  
arrantzaleentzat. Baiña gauza asko bear  
doguz orretarako. Zeuon laguntasuna eska-  
tuten detsuet.

Arraintzaleak asko poztuko litzakez, etxe  
orretan gauza atsegingarriak aurkituko ba-  
lebez. Bialdu eistazuez ba, mesedez, bein  
irakurrita daukozuezan errebista zarrak,  
*Hila, Caretas, Cinegrama, Marca* ta olako  
klasekoak. Ta al badozue, bialdu baita mu-  
sika diskuak-bere, milla bidar entzunda  
daukozuezanak.

Mesede aundi hat egingo deutzazue Itxas  
Apostoladuari ta arraintzaleeri. Bialdu zu-  
zenbide onetara: Padre Imanol Berriatua,  
Padres Franciscanos, Bermeo, Vizcaya.

Milla esker emoten deutsuedaz oraindi-  
kek, eta otoitz egingo dot Jaungoikoaren  
aurrean zeuok guztiokaitik.

*Aita Imanol Berriatua*

Ejercicioak Arantzazun bizkaitar  
euskeraz. **Egunak:** Urtarrillaren  
20-tik 26-ra.

**Zuzendariak:** Aita Sabin Zubieta  
ta Aita Arabaolaza. Neskati-  
tzako bakarrik.

# Ondo ezkontuteko bear dan kondiziñu bat: **LIBERTADEA**

—“Alabatxo, mutil orregaz ez zaitez ezkondu; orrek ez deutsu egundo zorionik emongo. Ez zaitez orregaz ezkondu...”

—“Semetxo, neskatilla orregaz ezkonduko zara? Bestelako “petrandela” artuko dozu! Zuk irabazten dozuzan diru apurrak, ezpañak eta betulak pintaten eroango deutsuz sistrin orrek. Ez zaitez ezkondu orregaz...”

—“Nik badiñotsut: mutil ori etxura bako mutilla dozu; zeuk gura dozuna egin, baiña ni ez nintzake orregaz ezkonduko. Alabatxo, ez zaitez orregaz ezkondu...”

Ikusten dozuzan legez, irakurle, kontseju oneek “ezezkoak” dira, negatibuak. Baiña, ba-dira baietzkoak edo “afirmatibuak” be. Ikusi dagiguzan batzuk.

## 2.—Semetxo, alabatxo, ezkondu zaitez...

—“Semetxo, ez zaitez tontua izan: arin ibilli zaitez besteen batek aurrea artu baiño len. Ori aberatsa dozu! Ezkondu zaitez ainbat arifien...!”

—“Da, zer esan cutsun atzo Juanito-k?”

—Ba... ezetz... E! Gañera neuk be eztaukot gogo askorik beragaz ezkontuteko...

—Ai, lelia! Ez dakizu nor dan! Mutil obarik ez daukazu Gernika inguruan. Zoaz datorren aztelenian Gernika-ra...”

—“Laster ezkontza eguna izango da ezta? Denporatxua be bada alkarrekin asi ziñela-ta...”

—Eztakit, ama, gero eta urrungo ikusten dot ba ezkontza-eguna; gero eta gogo gixiango daukot ezkontzeko...

—Zer, ba? Monja sartutea pentsa dozu ala?

—Orrelakoen bat...

—Tira, tira, Miren, ez zaitez zoratu; ezkondu zaitez, asko be zoriontsuagoa izango zara-ta...”

## 3.—Ezkontzagaz norberaren bizi-modua aukeratuten da, ez gurasoena!

Ezkontza inportantzi aundiko gauzea da. Ezkontzak bere lotsa edo errespetua bear dau. Ez deritxat, ba, txarto ezkondu baiño len seme-alabak gurasoeri kontseju onak eskatzea; baita ondo deritxat gurasoak eu-

ren iritxia emotea. Baiña, kontuz! Iritxia emotea ondo dago; iritxia nai ta nai ez sortzea, ez. Norberari ondo jatorkona, askotan besteari ez jatorko ondo. Alkar-errespetua mundu onetan aurkitu geinken gauzarik aundiena da. Zer esanik be ez ezkontzako problematan. Norberak daki norberari zer eta “zein” —au batez be— jatorko ondo.

Gurasoak, emon kontsejuak ezkontzara doazen seme-alabeeri; baiña, ez sartu nai ta nai ez zeuon iritxia. Alegindu seme-alabak libertade osogaz ezkondu daitezen. Libertadea bear bearrekoa dogu danok, zuek eta nik; libertadea bear bearrekoa dogu bakoitzok Jaungoikoak emondako bokaziñua jarraituteko.

Libertadea dala ta ezta, ezkontza asko baliobakoak izan dira.

*Idoyaga-tar Xabier*



# BURUKO - MIÑAK KENTZEKO

**"Ez bata, ez bestea"**

Egingo neuskizu, irakurle, eztakizula esakeran onen iturburua. Eta ezta ba ixil-mixilllean kolko barruan gordetakoa be!

Ara, Bein baten ba ei egoan abade jaun bat oso eper-zalea. Atsegin-atsegin ei iakozan eperrak saltza gozotan prigiduta. Erriko jaiak be ba-eto-zenda, Aita sermolaria deituta eukan egun orretarako. Sermoi ederra egingo eban fraille arek, bai orixe!, len be ederrik asko eginda egoan-da. Eta mereziduko ez eban ba bazkari on bat? Eper pare bat be ekarriko eban, aor, egun orretarako.

Edu ziran Santiyagoak. Eleizea inoizko apainen egoan! Goizeko mezara jendea polito etorri zan. Baña geienak Meza Nagusira joan ziran Don Bixente-ren prefazioa ta Aita fraillearen sermoi ederra entzutearren. Baita abadearen arrabea be Meza Nagusira joan zan, ordurako eperrak saltza gozotan prigiduta be ba-eukazan-da.

—Au da nirea! —esan eban orduan amar urteko Joantxo-k, abadearen lobeak—. Gurean eztago inor, bai?, ta atzo nire osabeak ekarriko eperrak jan egingo dodaz».

\* \* \*

Esan bakarrik ez gero! Esan, eta egin. Sartu eskaratzera, kazolak idigi, ta antxe arkitu ebazan eperrak usainik gozoena erioela. Joantxori bagiak ostu eutsezan, ta atzamarrak sartu eta... jan ez, iruntsi egin ebazan eperrak, ta ondoren atzamarrak miazkatu katuen antzera. Olako agokadarik orraitio sekula ez eban jan.

\* \* \*

Baña gero izan ziran larriak! Meza Nagusia amaituko zan. Eterriko ziran maira osaba-frailleak, ta eperrik ez agertzean, nor izango zan errudun? Joantxo, jakina. Eta a zelako astiñaldia emongo eutsan Don Bixente-k!... Zer egin?

Fraillea etorri zan lenengo abade-etxera. Ta Joantxo-k ba-ekian ba, bizkorrak alakoak!, bere osabearen oitura au: maian jezartean kutxilloak alkarren kontra zorrotzuteko oiturea. Ta zer egin eban? Aparte deitu frailleari, ta esan eutson:

—Jauna, beorregaz berba egin nai neuke.

—Zer diñozu ba, mutiltxu ba: fraille zatozela edo?

—Ez, jaune. Gauza bat esango deusat, baña inori ez esatekotan gero!

—Ia ba, esaidazu ba, ez dau nire agotik urteengo-ta.

—Ara ba, jaune, jakin bei beorrek: nire osabiak aspaldion burutik egiten dau. Badaki zer emoten deutsan buruak? Zerau: konbidauen belarriak ebagitea.

—Ezta izango!

—Bai, jaune. Ta kontuz ibilli bei. Gaur be kutxilloak zorrotzuten asten dala ikusten badau, iges egin bei maitik. Osterantzean, belarri barik geratu bearko dau.

\* \* \*

Eskerrak emon eutsazan frailleak. Errekontxo! Ori be entzun bear! Ta, bildurrez baña, itxaron eban bazkari ordua nolz etorriko. Jezarri ziran alangoren baten abadea, fraillea ta mutikoa. Ta, maia bedeinkatu ondoren, ezer txar barik, jaten asi ziran, sopia-ta, barbanztua-ta... Baña au amaitutakoan, zer zan a? Ezta ba asten abade jauna esku banatan kutxillo bi artu ta eurak zorrotzuten? Asi baño ez, eta dana bertanbera itxita, tximista baten ariñean an non doan fraillea eskillarak bera... Abadea, zurtz eginda, fraillea zoratu zalakoan. Ta bat-batean arrabea agertzen da larri ta istu, ta ba-difotso:

—Bixente! Olakorik! Eperrak falta iakuz! Eperrak ostu deuskuez!

—Katuak izango ete ziran ba?

—Ez, osaba —ganeratu eutsan orduan Joantxo-k, zoli-zoli—. Fraillea izan da. Neuk ikusi dot. Ta an daroaz biak kolkoan sartuta.

Frailleak eperrak ostu, ta biak atan be! Salto baten kalean zan Don Bixente, ta fraillearen atzetik arrapaladan asi zan, eskuan kutxillo bat erolala, ta deadarka:

—«Bietatik bat beintzat, bietatik bat!»

Eperrakaitik inotsan. Baña frailleak, bere belarriekaitik inotsalakoan, ikaraz erantzun eutsan:


—«Ez bata, ez bestea, lagun; ez bata, ez bestea».

Ta anak bizkorragotu ebazan konbentura gorrik eltzeko...

\* \* \*

«Au olan izan bazan sartu daitela kalabazan, eta urten daijala Morga-ko plazan».

# Belen estalpeko argi brintzak



*Eskabidea:*

*"Gau zabala... Gau argia...  
Gau zeru-barrez jantzia  
Sortu nigan poz-abia,  
Zure maite-iturria..."*

## I

Gau illunak atsegin-ortua edo "paraisua" edarra tapau eta eskutau ebaneko, Adanen semeak *Zuri* itxaroten egozan, *O Jesus*: pekatuak lenengo dotoretasuna zapaldu ebaneko, ta gure lenengo "gurasoak" arantzta ta sasi artean sartu ziraneko, negar-erri onetako seme guztiok *Zu* noiz agertuko amesetan gengozan: begi guztiak zeruan josita egozan zure "Izarra" noiz ikusiko. *Zeu* ziñan Salbatzaillea, *Zeu* etorri bear eban Libertadorea! Ezbear, neke, eta miñaren zirikadak umanidade onen bizkarrak urrututen eta zaurututen zituenenan, onen negar-zizpuruak eta negar-zotiñak zeruetaraino elduten ziran. Eta zizpuru orreek eskari hardiña eroen beti:

—"Boteu zerutar *Garoa*, boteu zure *Donea*!..."

## II

Eta *Zeu* etorri ziñan. Gau baltza oiñestu batek legez, argitu zenduan mundua. Dana zan illuntasuna; eta larria, negarra ez

besterik ez zan ikusten alde guztietan... Baiña beste izarren artean agertu zan zure "Izar" argia, zure "Izar" barria: eta gau astuna arindu zan! Pastoreak eta erregeak, zure "Izarra" itaurren eginda, aringa-aringa joan ziran arrizulora eta derrot plantau ziran zure inguruan:... "eta zure askatxoaren aurrean belaunikoturik, adoratu zinduezan". Antxe zengozan *Zeu*, pospollin matrailla-gorri, zeru irribarre biguna erdi agirian zeunkazula. Goian, Aingeruak be zoraturik, kantari ziñoen:

—"Aintza Jaungoikoari zeru goienean, eta gogo oneko gizoneri **BAKEA** lurrean!"

## III

Azken eguneko Aingeruen tronpetaren ots ikaragarriak sepultura guztietako auzi lorrinduak batu eta betiko izango diran gorputz biurtu arte, eta lurak beren azken ikerak emon arte, *Zeu* izango zara munduaren zabalean erabiliko dan *Izen* gaztea... ta zarra! *Zeu* izango zara denpora guztietan zear deituko dogun *Izena*. *Zeu* izango zara istori luze onen mujoia: *Zu* jaio baño len, *Zu* jaio ondoren. *Zeu* izango zara betiko Salbaziñoa, Bizitza, Poza, Itxaropena, Indarra, Argia, Bidea... Eta azkenez, zeure aunditasunaren gerizpean gizaldi danetako biotzak apurtu bearrean esango dabe:

—"Kristo atzo ta gaur, eta Ber-bera denpora guztietan!"

*Yon Zabalgo*